

## Politikaren zulo beltzak

*El Mundo del País Vasco*, 1992-01-17.

"Politika"ren magia debaluatzen ari zaigu. Denbora bateko zero urdinetan ozono faltak eta izartegian zulo beltzak deskubritzen ari garen moduan hasi gara soak ere sitsak joak daudela konturatzen, zeren eta gero eta gehiagok gutxiago balio digu behar duguna eskuratzeko.

Gizakiaren mundua porrot egiten ari da. Politikan, esate baterako, uste genuen bada arrazoizko bideak kontradizio guztiak urtuko zizkiola.

Aurrean, noski, gilotinaz buru batzuk moztu behar; gero, proletarioen klase arrazoiak errazago ezabatuko zituen kontraesan horiek, ez zen egongo ere!; historian oraintsu, oso garesti irtendako demokraziak sortu zigun itxaropen berria, eta exenplua eman, berria du munduan zehar kontsentsuaren formula honek, exportatzen ere hasiak dira espainolek. Baina ikusten ari garenez, hemen ere indarra duenak agintzen du, adostasunak honen arabera dabilenean funtzionatzen du, eta burua edo hizkuntza gaitzen duena da hemen ere galtzaile.

Orain konturatu da Joseba Zubia kontseilari jauna, fede onez, noski, adostasunaren izpirituan ere zuloak sortzen direla, beti agintzen duenaren arabera: 1987 arte zerbait funtzionatu badu, harrez gero Stop, transferentziak amaitu direla, eta lehen emandako batzuei ere hitz ederreko Auzitegi Konstituzionalaren erabaki bidez barruak hustu dizkiela. Gauzak honela, hara nondik adostasuneko ezkontzaren bidez gure Euskal Herriko Jaurlaritzak hautatu duen Hezkuntza Kontseilari eta Lehendakari Orde erdaldunak esan berri duen: Eusko Jaurlaritzari ez dagokiola geure herriko hizkuntzaren erabilpena bultzatzea. Orduan, zer gobernuk bultza behar dio bada euskarari?